

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

IDATZIZKO AZTERKETA



ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordu bat eta 45 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitez letra txukuna egiten.

Ahozko azterketa

- Ahozko azterketan gai bat azalduko diezu aztertzaileei. Egiten hasi baino lehen, bi gai emango dizkizute bat aukeratzeko; ondoren, hamar minutu izango dituzu aukeratutakoa prestatzeko, eta gero beste horrenbeste aztertzaileen aurrean garatzeko.
- Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, idatzia eta ahozkoa biak gainditu behar dituzu.

1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Cloze-testa
- **Ariketa:**
 - Ondoren 50 hutsuneko testua daukazu.
 - Zenbaki bakoitzak hitza kendu dela adierazten du.
 - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion hitza.
 - Ezer egin aurretik artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

ESKULAN MERKEA

Multinazionalen sorreraren oinarrian ___1___ mendekotasuna dago, eta errentagarritasuna handitu nahian konpainia handiak lan kostu merkeagoak eskaintzen dituzten herrialdeetara jotzen ari dira. ___2___ ez du zertan txarra izan, azken finean, eskaintza-eskaria harremanean oinarrituriko ekonomiaren irizpideak jarraitzea ___3___ eta, hein batean, multinazionalak sortzen duten aberastasuna ekonomia ___4___ dituzten herriak suspertzeko bidea ere izango litzateke. Hala ote da, ___5___? Ezezko biribila ezin bota, baina jakina da kasu askotan ez dela hori gertatzen. ___6___, herrialde askok multinazionaleri eskaintzen dizkieten lan baldintza ___7___ horien atzean, eskulan merkea dago, eta horrekin batera langileriak berak zuzenean ___8___ dituen esplotazio egoera larriak. Kasu gehienetan, emakumeak izaten dira halako egoerari aurre egin behar izaten ___9___, baina haurrak ere badira esplotazio horren biktima.

Kapitala ___10___ bultzatu duten multinazionalak beraien legea ezarri dute, hala konpainien ___11___ baldintzak dituzten estatuetan, nola merkatuan. Kostu apalagoak ___12___, ekoizpena ahalik eta lantoki gutxienetan pilatzea ere bilatzen dute multinazionalak, etekinak handitze ___13___. Baina joera hori, kostu baxuagoen bila joatea ___14___, ez da berria eta ez da Europako Batasuna zabaltzearen ___15___ soilik, Hego Amerika eta ___16___ Asia aspalditik baitaude multinazionalen begira-puntuan globalizazioaren ___17___. Gainera, eskulan merkea ez ezik, ___18___ ere eskaintzen dute Europako ekialdeko herrialdeek, adibidez. Espainian eskulanaren kostu gordina orduko 14,2 eurokoa bada, Lituanian 2,7koa da; eta Errumaniak eta Bulgariak 1,51 eta 1,35 euroko kostuak dituzte, ___19___.

Merkataritzaren liberalizazioak ___20___ egin du ekoizleen kopurua, eta ekoizleen arteko ___21___ langileen lan-baldintzak kaskartzea dakar gehienbat. Multinazional askotan gutxieneko soldatara iristen ez diren ___22___ eskasak, langabeziagatik prestaziorik eza, eta zenbait kasutan ___23___ sexuala eta mehatxuak ere ohikoak dira. ___24___, munduko konpainia garrantzitsuenek eskuratzen dituzten ___25___ banatu gabe uzteaz gain, ezartzen diren herrialdeetan sortzen duten enplegu ___26___ %0,05 baino ez da.

Bestalde, ___27___ munduan bizirauteko lan egin beharrean dauden haurren kopuru zehatzaren berri izatea ezinezkoa dela. ___28___, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) ___29___, 73 milioi inguru dira lan egiten dutenak, eta ez dago munduan herrialde bakar bat ere lanean ___30___ haurrik ez duenik. Unicefen datuekin ___31___ gero, Espainian bertan 175.000 haurrek lan egiten dute esplotazio baldintzetan; ___32___, garapen bidean dauden herrialdeak dira halako kasu gehienak dituztenak. ___33___, egiazko zifrak azterketa horretan jasotzen direnak baino are larriagoak izan daitezkeela ___34___ du Lanaren Nazioarteko Erakundeak. Izan ere, alde batetik hamar urtetik ___35___ haurren datuak eskuratzea oso zaila delako, eta bestetik, etxeko lanetan ari diren neskatxak ere ___36___ behar direlako. Hala, egun munduan lan egiten duten adin txikikoen zifra ___37___ milioikoa litzatekeela diote LNEkoek.

Leku guztietan egoera berbera ___38___, ezin ahantz daiteke nekazaritzan, ___39___, harrobietan nahiz sexuaren industrian, asko direla gutxieneko premiak asetzen ez dituzten ___40___ . Are gehiago, zenbait herrialdetan ohikoa da senitartekoek ___41___ haurrak nekazaritza eremuetatik hirietara eraman, eta han etxeko lanak egin ___42___ nolabait «saltzea». Ondorioz, esperientzia ___43___ latza bilaka daiteke eta haur askori neke ikaragarriak eragin ___44___ erabateko garapena eragotziz.

Egoera ___45___ honi nolabait buru egiteko, hainbat konpainiak beren jokabide-kodea egin dute, ekoizpen kateetan nazioarteko lan ___46___ betetzeko konpromisoa hartuz. ___47___, kodea betetzea zenbaitetan langileen lan-arazoak ___48___ dituen txostena egitea baino ez dela salatzen dute Intermon-Oxfam erakundetik, ___49___ arazo horiek zergatik gertatzen diren edota nola konpon ___50___ aztertu gabe geratzen baitira.

OLATZ ELOSEGI
ZABALIK, 2004ko maiatzaren 28a
EGOKITUA

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « ESKULAN MERKEA »
- **Teknika:** Cloze-testa

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 1. a) kapitaleko
b) kapitalarekiko
c) kapitalagatiko
d) kapitaletiko | 2. a) Zoritzarrez
b) Zinez
c) Ondorioz
d) Izatez | 3. a) litzatekeela
b) litzatekeenez
c) baillitzateke
d) litzatekeen arren | 4. a) ahulagoak
b) emekiagoak
c) zitalagoak
d) gizenagoak |
| 5. a) horrenbestez
b) gehienez
c) behintzat
d) ordea | 6. a) Beste alde batetik
b) Litekeena da
c) Batez beste
d) Izan ere | 7. a) setati
b) abantailatsu
c) sarkor
d) kementsu | 8. a) pairatzen
b) baretzen
c) atzeratzen
d) gordintzen |
| 9. a) diotenak
b) zaienak
c) dutenak
d) dienak | 10. a) deuseztatzea
b) agortzea
c) metatzea
d) antzematea | 11. a) garapenerako
b) ebaketarako
c) hizpiderako
d) biderketarako | 12. a) baizik
b) ezean
c) ez eze
d) beharrea |
| 13. a) aldez
b) aldera
c) alde
d) aldean | 14. a) alegia
b) aldiz
c) hau da
d) bide batez | 15. a) eragiketa
b) onespena
c) zirriborroa
d) ondorena | 16. a) bereziki
b) badirudi
c) hori dela eta
d) azkenik |
| 17. a) premiaz
b) eraginez
c) zerikusiz
d) gako | 18. a) lerdena
b) gaitua
c) jorratua
d) arrotza | 19. a) besterik ezean
b) hots
c) aitzitik
d) hurrenez hurren | 20. a) goraiatu
b) bideratu
c) areagotu
d) gaineratu |
| 21. a) lehiak
b) laginak
c) lorratzak
d) baliabideak | 22. a) eskupeko
b) lansari
c) gabezia
d) egitarau | 23. a) eraketa
b) ebazpen
c) hausnarketa
d) jazarpen | 24. a) Demagun
b) Halaber
c) Bide batez
d) Ezpada |

- | | | | |
|--|---|--|---|
| 25. a) eraldaketak
b) itunak
c) mozkinak
d) xehetasunak | 26. a) iheskorra
b) egonkorra
c) baikorra
d) labainkorra | 27. a) argi dago
b) ezbairik gabe
c) horrela bada
d) dirudienez | 28. a) Badaezpada
b) Horregatik
c) Gainerakoan
d) Nolanahi ere |
| 29. a) gainean
b) aburuz
c) kabuz
d) baitan | 30. a) darion
b) daraman
c) diharduen
d) dirauen | 31. a) eratuz
b) alderatuz
c) antzeztuz
d) sakabanatuz | 32. a) berriz
b) baita ere
c) bide batez
d) alabaina |
| 33. a) Dena dela
b) Bestela
c) Alderantziz
d) Batik bat | 34. a) galarazi
b) abiarazi
c) ohartarazi
d) ernegarazi | 35. a) gorengo
b) bitarteko
c) beherako
d) gutxieneko | 36. a) isolatu
b) ontzat eman
c) bermatu
d) aintzat hartu |
| 37. a) ehunen
b) ehunka
c) ehuneko
d) ehuna | 38. a) izatearren
b) izandakoan
c) izateaz
d) izanagatik | 39. a) zuriketan
b) ehungintzan
c) haurgintzan
d) eragiketan | 40. a) alorrak
b) ikuspegiak
c) ezbaiak
d) ingurumenak |
| 41. a) berak
b) haiek
c) eurek
d) norberak | 42. a) litzaketen
b) daitezen
c) lituzketen
d) ditzaten | 43. a) arras
b) hainbeste
c) franko
d) samar | 44. a) lituzke
b) liezazkioke
c) litzaizkioke
d) lizkiokete |
| 45. a) miresgarri
b) mugarri
c) tamalgarri
d) bizigarri | 46. a) adimena
b) baimena
c) araudia
d) eskarmentua | 47. a) Beraz
b) Esaterako
c) Gainera
d) Halere | 48. a) jasotzen
b) sortzen
c) erakartzen
d) eraikitzen |
| 49. a) nola
b) ezen
c) nahiz
d) nondik | 50. a) luketen
b) zatekeen
c) litezkeen
d) liratekeen | | |

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « ESKULAN MERKEA »
- **Teknika:** Cloze-testa.
- Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	B	2.	D	3.	C	4.	A
5.	D	6.	D	7.	B	8.	A
9.	A	10.	C	11.	A	12.	C

13.	B	14.	A	15.	D	16.	A
17.	B	18.	B	19.	D	20.	C
21.	A	22.	B	23.	D	24.	B

25.	C	26.	B	27.	A	28.	D
29.	B	30.	C	31.	B	32.	D
33.	A	34.	C	35.	C	36.	D

37.	B	38.	D	39.	B	40.	A
41.	C	42.	D	43.	A	44.	B
45.	C	46.	C	47.	D	48.	A
49.	B	50.	C				

2. IDAZMENA

Ariketa: Hurrengo orrian gai bat daukazu berari buruzko zeure iritzia azal ditzazun. Gaiarekin batera, laguntza gisa, beraren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait puntu.

Oharrak: Kontuan hartu idazlana egin behar duzula, hau da, ez duela balio gauzak eskematikoki aipatzeak; alderantziz, esaten direnak azaldu egin behar dira, **konposizioa** egin behar da. Bestalde, lagungarri gisa ematen diren informazioko esaldiak beste barik kopiatzeak ere ez du balio.

Idazlanak **gutxienez 350 hitz (50 bat lerro)** izan behar ditu; beraz, gutxienero luzera eskatzen da.

Idazlana zuzendu eta baloratzeko orduan oso kontuan hartuko dira **gaiarekiko lotura, testuaren egituraketa egokia, erregistro egokia, testuaren barneko lotura, eta gramatika zuzentasuna.**

Gaia: « Errepideetako segurtasuna »

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, urtean 1,2 milioi pertsona inguru hiltzen da trafiko istripuetan.

Europar bezala, Espainiako estatuan ere puntu bidezko gidabaimena ezarri nahi da: gidariak arauen bat urratzen badu, puntuak galduko ditu eta guztiak galduz gero, gidabaimena kenduko zaio.

Garraiolariak arauak urratzeko arrisku handiagoa dute ordu gehiago ematen dutelako errepideetan.

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastetxeetako ikasleek trafikoari buruzko irakasgai bat izango dute, eta praktikari teoriari baino garrantzi handiagoa emango zaio.

- Errepideetako segurtasuna: gaur egungo egoera.
- Gidarien betebeharrak eta arazoak: garraiolarien kasua, puntu bidezko gidabaimenak ekar litzakeen ondorioak...
- Istripuak gutxitzeko neurrien eraginkortasuna: Trafiko Zuzendaritzaren kanpainak, zigorrak...
- Bide segurtasuna hobetzeko neurriak: gidarien eta oinezkoen prestakuntza eta heziketa...

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75